

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4681

EBAZPENA, 2018ko irailaren 10ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskadiko kirol federazioen 2018ko kirol programetarako aurkeztutako diru-laguntza eskaerak ebazten dituen.

AURREKARIAK

1.– Ondorengo lege-xedapenetan ezarritakoaren babesean aurkeztutako eskaerak ikusi dira: Euskadiko kirol federazioetarako kirol programen gaineko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen abenduaren 26ko 287/2000 Dekretua eta Euskadiko Kirol Federazioen 2018ko kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen 2018ko urtarrilaren 24ko Agindua.

2.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 24ko Agindua eta goian aipatutako Dekretuaren 7.1 artikulua kontuan izanda, Kalifikazio Batzordeak, Vitoria-Gasteizen 2018ko uztailaren 4an bilera egin eta aurkeztutako eskaeren gaineko ebazpen-proposamena egin zuen, eta, ondoren, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariari aurkeztu zion.

Horiek horrela, eta Kalifikazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena ikusirik, aipatu Dekretuak 7.2 artikuluan ematen didan ahalmena erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasota dauden Euskadiko Federazioei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea. Kopuru horiek urteko gehieneko diru-laguntzarenak dira, hau da, lehen aipaturiko Dekretuaren 5. artikulua ordaintzeko moduari buruz ezarritakoari jarraituz 2018. urteko diru-laguntzaren kontura federazioek aldeztu aurretik jaso dituzten diru-kopuruak horren barruan direla ulertuko da. Aipatutako diru-laguntzak finantzatzeko bideratu den zenbatekoa guztira 2.445.000 eurokoa da.

Bigarrena.– Aipatutako aginduaren 6.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko kirol federazioen kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzak zati bakar batean ordainduko dira. Horretarako, emandako diru-laguntza osoari aldeztu aurretik emandako kopuruak kendu ondoren geratzen den kopurua ordainduko da, betiere aldeztu aurretik emandako diru kopuruak justifikatu ondoren.

Hirugarrena.– Diru-laguntzaren bat jaso duten federazioek diru hori 2018ko urtarrilaren 24ko Aginduan eta diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako helburuetarako erabili dela egiaztatatu eta justifikatu behar dute 2019ko otsailaren 15a baino lehenago. Horretarako, ondoren jasotzen diren agiriak aurkeztuko dituzte:

- a) 2018. urteko balantze ekonomikoa, Batzar Nagusiak onartua.
- b) Burututako kirol-proiektuari buruzko memoria zehatza. Horrekin batera, eskabidean zehaztutako jarduerak burutu direla erakusteko dokumentazioa aurkeztu behar da.
- c) Eskabidea aurkezteko momentuan hartuko zutenik ez jakiteagatik adierazi gabe utzi eta, ondoren, xede berberaz jasotako gainerako laguntza guztien aipamena.

2018ko irailaren 26a, asteazkena

d) Gastuaren justifikazioa. Gastuen justifikazioa jatorrizko fakturak aurkeztuz egingo da, edo, bestela, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren edozein lurralde-zerbitzuko konpultsatutako fotokopiak erakutsiz. Jasotako diru-laguntzaren baliokidea izango da justifikazio hori eta ebazpenean finkatutako baldintzetara egokitutakoa.

e) Eskabidearekin batera, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoa aurkeztu duten federazioei dagokienez, konpromiso hori betetzen dela erakusten duten agirien aleak.

Laugarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak dagokion likidazio-ebazpena emango du. Hala badagokio, ebazpen horretan bertan jasoko da dagoeneko ordainduta dagoen eta itzuli behar den kopurua. Kopurua itzuli beharra izanez gero, bi hilabeteko epea egongo da hori egiteko, likidazio-ebazpena jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.– Diru-laguntzaren baldintzak ez betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza 287/2000 Dekretuan aurreikusitako jarduerak egiteko barik, beste batzuk egiteko erabiltzea.

b) Emandako diru-laguntza ez justifikatzea.

c) Aurkeztutako eskaeran edo dokumentazioan jasotako edozein datu egiazkoa ez izatea.

d) Kirol Federazioak ez jakinaraztea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari kirol programak egiteko beste laguntza batzuk jaso dituela.

e) Bestelakoren bat, baldin eta ezargarri den bestelako xedapenen batean ezarritakoaren aurka badao.

Diru-laguntza ematea ebatzi zenean hori egiteko kontuan izan ziren baldintzaren bat ez dela bete egiaztatzen bada, jasotako diru-kopuru eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari, bai azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak bai abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak ezartzen duenaren arabera eta modu-moduan.

Seigarrena.– Ebazpen hau interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio.

Zazpigarrena.– Diru-laguntza guztiak eta onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta, horrenbestez, badago gorako errekurtoa aurkezterik Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, hala adierazten baitu urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 10a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.

2018ko irailaren 26a, asteazkena

I. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZAK

	Federazioa	IFK	2018 Diru laguntza (euro)	Emandakoa (euro)	Eman beharrekoa (euro)
1	Euskadiko Ur-Azpiko Jardueretako Federazioa	G-48547871	36.516,70	16.903,30	19.613,40
2	Euskadiko Xake Federazioa	G-20155792	31.410,02	1.500,00	29.910,02
3	Euskadiko Atletismo Federazioa	G-20146098	107.604,70	52.451,36	55.153,34
4	Euskadiko Automobilismo Federazioa	G-01037563	34.339,32	15.888,44	18.450,88
5	Euskadiko Badminton Federazioa	G-20383782	26.351,37	12.384,50	13.966,87
6	Euskadiko Saskibaloia Federazioa	G-01037175	143.313,52	66.919,25	76.394,27
7	Euskadiko Eskubaloia Federazioa	G-20139150	104.384,00	52.192,00	52.192,00
8	Euskadiko Beisbol eta Sofbol Federazioa	G-20447744	19.789,65	9.476,42	10.313,23
9	Euskadiko Bolo Federazioa	G-01036441	14.500,00	7.000,00	7.500,00
10	Euskadiko Boxeo Federazioa	G-01104009	24.201,91	11.414,17	12.787,74
11	Euskadiko Ehiza Federazioa	G-48261465	25.000,00	12.500,00	12.500,00
12	Euskadiko Txirrindularitza Federazioa	G-20157871	142.549,91	70.639,65	71.910,26
13	Egokitutako Kirolen Euskadiko Federazioa	G-01365683	105.468,88	50.000,00	55.468,88
14	Euskadiko Aire-Kiroletako Federazioa	G-20193454	12.950,00	6.000,00	6.950,00
15	Euskadiko Negu-Kiroletako Federazioa	V-48196133	60.521,76	29.797,98	30.723,78
16	Euskadiko Futbol Federazioa	G-48534846	152.107,46	74.550,71	77.556,75
17	Euskadiko Gimnastika Federazioa	G-01045822	43.000,00	21.500,00	21.500,00
18	Euskadiko Golf Federazioa	G-20139176	38.149,42	17.556,18	20.593,24
19	Euskadiko Halterofilia Federazioa	G-20170346	21.497,55	9.041,96	12.455,59
20	Euskadiko Zaldiketa Federazioa	V-48195887	21.974,93	10.987,46	10.987,47
21	Euskadiko Hockey Federazioa	G-20150603	42.419,47	20.497,64	21.921,83
22	Euskadiko Judo Federazioa	G-20171302	47.149,19	22.902,31	24.246,88
23	Euskadiko Herri Kirolen Federazioa	G-48267025	57.192,76	27.133,28	30.059,48
24	Euskadiko Karate Federazioa	G-48418453	31.401,28	15.125,98	16.275,30
25	Euskadiko Borroka eta Sambo Federazioa	G-48200802	21.209,14	9.750,00	11.459,14
26	Euskadiko Mendizale Federazioa	G-20126447	110.000,00	55.000,00	55.000,00
27	Euskadiko Motoziklismo Federazioa	G-20147088	27.250,00	13.623,99	13.626,01
28	Euskadiko Igeriketa Federazioa	G-48257026	75.000,00	37.500,00	37.500,00

2018ko irailaren 26a, asteazkena

	Federazioa	IFK	2018 Diru laguntza (euro)	Emandakoa (euro)	Eman beharrekoa (euro)
29	Euskadiko Padel Federazioa	G-01426485	25.000,00	11.615,58	13.384,42
30	Euskadiko Iristaketa Federazioa	G-48196067	49.859,40	24.366,96	25.492,44
31	Euskadiko Euskal Pilota Federazioa	G-20129326	107.564,29	53.756,15	53.808,14
32	Arrantza eta Kasting Euskal Federakuntza	G-20214854	18.000,00	9.000,00	9.000,00
33	Euskadiko Petanka Federazioa	G-01153543	9.308,51	4.027,34	5.281,17
34	Euskadiko Piraguismo Federazioa	G-20150744	75.644,65	36.750,00	38.894,65
35	Euskadiko Arraun Federazioa	G-20110292	109.000,00	54.500,00	54.500,00
36	Euskadiko Errugbi Federazioa	G-20134607	124.656,60	62.295,63	62.360,97
37	Euskadiko Squash Federazioa	G-20791596	6.237,56	2.750,00	3.487,56
38	Euskadiko Surf Federazioa	G-20315271	66.379,20	32.500,00	33.879,20
39	Euskadiko Taekwondo Federazioa	G-48401780	27.321,68	13.039,27	14.282,41
40	Euskadiko Tenis Federazioa	G-48198576	59.928,64	29.537,01	30.391,63
41	Euskadiko Mahai-Tenis Federazioa	G-48460042	17.634,10	8.500,00	9.134,10
42	Euskadiko Arku-Jaurtiketako Federazioa	G-48282792	9.920,84	3.942,16	5.978,68
43	Euskadiko Tiro Olinpiarreko Federazioa	G-01039908	26.077,90	12.293,72	13.784,18
44	Euskadiko Triathoi Federazioa	G-20473773	40.000,00	20.000,00	20.000,00
45	Euskadiko Bela Federazioa	G-20139903	63.379,57	30.496,82	32.882,75
46	Euskadiko Boleibol Federazioa	G-01036508	31.834,12	15.392,74	16.441,38
	Total/Guztira		2.445.000,00	1.174.999,96	1.270.000,04